

Aitor Zabaleta

KAZETARIA

Europaren traizioa

Sekula ez zaizkit begirada haiek ahaztuko. Laurogei inguru ziren, denak beltzak, gazteak, atleten gorpuzkerakoak, atentzioa emateko moduko mutilak. Komisariako kanpoaldean zeuden, elkarren ondoan lurrean eserita, isil-isilik, inguruan bueltaka polizia nazionalak zituztela. Aurreko egunean heldu nintzen Melillara. Esnatu bezain laster jakin nuen etorkin talde handi batek alanbrezko hesia pasa zuela, goizeko zortzietan komisariaren atarian nengoan, telebistan eta argazkietan horrenbeste aldiz ikusitakoa aurrez aurre nuen.

Hala ere, guztiz irrealak iruditu zitzaizkidan egoera, lekuz eta denboraz kanpo Mediterraneoko udazken goiz eguzkitsua hartan. Zuzeneko lekuko pribilegiatu barik, beste mundu batean ikusi nuen neure burua, egiazkoa ezin zitekeen esklabuen pelikuletako eszena baten ikusle, beltz gizajoak zuri ahaltsuen eskuetan.

Hogei urte daramazkit kazetari lanetan, eta sekula ez dut orduko zirrara sentitu beste inon. Lur jota zeuden etorkin afrikarrak, nekeak eta tentsioak leher eginda. Ez zuten hitz egiteko indarririk ere, arropak apurtuta, zangoak eta besoak zauriz beteta. Lehorrera arrastaka heldutako naufragoak ziruditen, edo tortura gelatik atera berriak.

Tente egoteko ere ez ziren gai, baina niri heroiak iruditu zitzaizkidan, epopeia moderno bateko titan menderaezinak. Hil edo biziko bidaiaren helmugan zeuden behingoz, baina han ez zegoen alaitasunik, sufrimendua baizik, sekula ikusi ditudan begirada triste eta hunkigarrienak.



Hogei urte
daramazkit
kazetari lanetan,
eta sekula ez dut
orduko zirrara
sentitu beste inon



Orduetik hiru urte pasa badira ere, askotan ditut gogoan etorkin haiek. Non egongo ote diren, zer bizimodu izango duten... Azken egunotan berriz etorri zaizkit burura, Europar Batasunak immigrazioa arautzeko neurri berriak hartu dituela eta.

Paperik gabekoak hamazortzi hilabetera arte eduki ditzakete "erretenituta", nahiz eta deliturik egotzi ez, edo epaileen erabakirik ez egon. Kanporatu arteko bitarte horretan, ez dute defentsarako aukerarik izango, legearen pisua tonaka eroriko zaie gainera.

Eskuindarren eta liberalen asmoa uste baino errazago onartu du Europako Parlamentuak, espainiar sozialista moderno eta sinpatikoekin. Zeinek eta Europak, milioika etorkin munduan barreiatu dituenak, bere burua traizionatu du, eta gaizkiletzat hartu ditu aukera hobeen bila datozenak. Aberats berrien Europak azkar ahaztu du nondik datorren, zelakoa den bere historia.

Ez du gogoratu nahi belaunaldi bakar batek banatzen gaituela gerratik eta gosetik. Duela 50 urte Alemaniara eta Suitzara emigratu zuten hiruzpalau milioi espainiarretatik gehienek ez zeukaten paperik, turista modura sartu ziren. Nahi nuke jakin zelan iritsi ziren Ameriketara milioika irlandar eta italiar. Melillan ikusi nituen afrikarren antzera, seguruenik. Paperik gabe.

Ez zait ahaztuko haietako batek esan zidana: "Zure etxea sutan badago, ez duzu baimenik eskatzen atetik ateratzeko edo leihotik salto egiteko. Horixe gertatu zaigu guri". ■

HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



Kontsumitzailea naizue. Hasieratik, partidu gehienak ikusi ditut *zappinga* lagun. Ikusle soila, ez nau inoren elastikoak erakartzen bereziki. Eskue-

Eurokopako

tako azkazalek eskertuko didate. Ez dut inork irabazi dezan desio, nahiz eta aitor dudana, holandarren jokoaz disfrutatu nuela, Frantziaren aurka irabazi zuten egunean. Agian, Frantziako Senatuari eta Hizkuntz Akademiari egotzi beharko nieke futbolari frantsesen porrota. Ez dakit. Ez dut politika eta kirola bereizteko adinako talenturik, eta niri dagokidanez, batek bestea kutsatzen du nire baitan. Poztu ninduen frantziarren ezusteko bilakaerak.

ez nazionalista ahoberoak negarrez eta errudun bila ikustegatik. Izan ere, nazkatuta naukate Siberia aldera igorri nahi zuten entrenatzailea gurtzen dabilzan kazetari horien jardunek. Zeren, beren selekzioa txapeldun atariko balitz, nork agoanta aurrerantzean telebistako emanaldiak eta garai bateko Zaragozako Marcelino jokalariairengolaz jasan beharrekoa? Palkutako biztanleriaren keinuak ikustea baino, hobe frantziar kateak sintonizatzea eta *Vina Larrusia* oihukatzea mutu. ■